

H DOKUMENTUA
ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA

ZALDIBIAko HAPOaren URTESABEL-AZPI 2.sektoreko PLAN PARTZIALA
HASIERAKO ONARPENA

ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2016ko apirilaren 7ko Legean ezarritakoaren arabera ("7.7" artikulua), Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoa eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira.

Bestalde, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko, **azaroaren 19ko, 179/2019 Dekretuaren** 50. artikulua arabera:

Por otra parte, según el artículo 50 del **DECRETO 179/2019, de 19 de noviembre**, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi:

50. artikulua. Ebaluatu behar diren planak eta proiektuak.

1. *Udalek behean zerrendatzen diren plan eta proiektuen hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko dute, bai eta horien funtsezko aldaketak ere, baldin eta euskararen erabileran eragina izango badute:*

a. *Planak:*

Hiri-antolamenduko plan orokorrak.

Plangintza orokorra bateragarri egiteko plana.

Sektorizatze-plana.

Plangintzako arau subsidiarioak.

Plan partzialak.

Hiri-antolamenduko plan bereziak.

Turismo-planak.

b. *Proiektuak:*

Merkataritzagune handiak eraikitzeako proiektuak.

Industriaguneak eta teknologia-parkeak eraikitzeako proiektuak.

2. *Aurreko zerrendan aipatutakoez gain, arnasguneetako euskararen erabileran eragina izan dezaketen plan eta proiektu guztiak ebaluatu beharko dira*

Zaldibiako udalerria Arnasgunea da. Ereku geografiko eta sozio-funtzional gisa definitzen da, non euskara dakiten pertsonen ehuneko % 80tik gorakoa den, eta ohikoa eta orokorra da euskara erabiltzea gizarte-harremanetan.

ZALDIBIAKO URTESABEL AZPI SEKTORE 2KO
PLAN PARTZIALA
HASIERAKO ONESPEN DOKUMENTUA

Horrek indartzen du, legez nahitaezkoa bada ere, hizpide dugun udalerrian ebaluazioa egitea guztiz egokia eta beharrezkoa dela hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaren helburua lortzeko: Lurralde eremu (auzo, herri, hiri, eskualde) jakin bateko proiektu eta plan pribatu zein publikoek bertako errealitate linguistikoan izan ditzaketen balizko eraginak aurreikustea, identifikatzea eta ebaluatzea da egitasmo honen helburu nagusia. Horrez gain, euskararen eta euskal hitun elkartearen egoerari kalterik eginez gero, horiek murrizteko eta aurrea hartzeko neurriak hartzea ere bai.

Urtesabel Azpi_Sektore 2ko Plan Partziala

Plan Partzial honetako proposamenek ez diote eragiten ez biztanleria-hazkundeari, ezta langile-fluxu handiagoan ere, gaur egun aktibo dagoen industria-sektore baten erregulazio espezifikoetara buruzkoa baita.

Gaur egun sektorean dagoen hirigintza-egoera erregularizatzea baino ez da kontua, espazioak berrantolatuz, lurzoru bakoitzaren kalifikazioa argitzeko eta lehendik dauden eraikinak finkatzeko.

Beraz, esan dezakegu Sektore horren garapenak, Plan Partzial honetan, **EZ duela zuzeneko eraginik "Zaldibiako egoera soziolinguistikoan"**.

2023ko abendua
Amaia Albeniz Goikoetxea, arkitektoa
Ainhoa Guerras Alfonso, arkitektoa
Hiri.Dunak estudioa